

Joan den azaroaren 30ean *Pour que vivent nos langues* kolektiboko kideak Parisen biltzen ginen Jean-Michel Blanquer hezkunde ministroaren lizeoetako erreformaren kontra eta murgiltze ereduaren kontrako erranak salatzeke.

500 bat pertsona bildu zituen elkarreteratze honez geroztik, Euskal Konfederazioa kide den Kolektiboko eragileek biltzen segitu dugu eta bitartean, "Libertés et Territoires" taldeko beste 18 diputaturekin batera, Paul Molac diputatuak lurralde hizkuntzen aldeko lege proposamena pausatzen zuen Asanbladan abenduaren 30ean.

Bederatzi artikulutako lege proposamen honek 3 arlo jorratzen zituen: lurralde hizkuntzak ondare gisa, irakaskuntza eta lurralde hizkuntzen erabilera zerbitzu publikoetan (seinaletikan eta estatu zibileko aktetan).

Lege proposamena Asanbladako Kultur batzordean aztertu dute joan den astean: 9 artikuluetatik 7 kendu dituzte (besteak beste irakaskuntzari lotu guziak) eta bi atxiki: lehen a ondareari buruz eta zortzigarrena seinaletikari buruz, bi hauek ez luketelarik funtsean deus berririk ekarriko onartuak izanez gero (lehenak ez baitu zehazten lurralde hizkuntzen irakaskuntza, promozioa eta garapena... konkretuki nola lagunduko lirakekeen, eta bigarrena jadaneko ongi garatua den seinaletika elebidunari buruz bakarrik baita).

Hala ere, lege proposamen horrek eginen duen bidea segitzekoa da, besteak beste joera politiko desberdinetako parlamentariak Asanbladan eta Senatuan iraganen diren eztabaiden bidez nola posizionatuko diren ikusteko (lehen irakurketa Asanbladan ostegun honetan, otsailaren 13an) eta proposamena hobetzeko emendakinik eginen duten jakiteko.

Bestalde, interesgarria da ere ikustea beste behin terrenoko mobilizazioak zenbait parlamentari mugitzera behartzen dituela eta lurralde hizkuntzen gaia mahai ganean atxikitzen ahalbidetzen duela. Asanbladan eta Senatuak eztabaidak eta bozkak iragan bitartean, *Pour que vivent nos langues* bezalako egituretan herri mugimenduak mobilizaturik segitzen du, euskara eta gainerateko hizkuntza minorizatuak garatuagoak izan daitezen eta hiztunen hizkuntz eskubideak aitortuak eta errespetatuak izan daitezen.

Baiona, 2020ko otsailaren 12a

Le 30 novembre dernier, à l'appel du Collectif *Pour que vivent nos langues*, quelque 500 personnes venues des quatre coins de l'Hexagone nous mobilisons à Paris pour dénoncer la réforme des lycées du Ministre Jean-Michel Blanquer ainsi que les propos tenus à l'encontre de l'enseignement immersif.

Depuis cette mobilisation, les membres du Collectif continuons à échanger sur la suite à donner à notre action. Et, parallèlement, le 30 décembre, le député breton Paul Molac et 18 autres députés du groupe "Libertés et Territoires" déposaient à l'Assemblée Nationale une proposition de loi relative à la protection patrimoniale et à la promotion des langues territoriales.

Cette proposition de loi composée de 9 articles portait sur les langues territoriales en tant que patrimoine, leur enseignement et leur usage dans les services publics via la signalétique et les actes d'état civil.

La proposition a été examinée en Commission des affaires culturelle de l'Assemblée nationale la semaine dernière. Sur les 9 articles, 7 ont été rejetés (notamment tous ceux traitant de l'enseignement) et seulement deux conservés après amendements : l'article 1er relatif au patrimoine et l'article 8 portant sur la signalétique. En l'état, ces deux articles n'apporteraient aucune avancée supplémentaire, l'article 1er ne précisant pas comment œuvrer concrètement en faveur de l'enseignement, la promotion et le développement des langues territoriales et l'article 8 traitant uniquement de la signalétique, domaine dans lequel le bilinguisme est déjà bien avancé, au Pays Basque tout du moins.

Il reste cependant intéressant de suivre le cheminement de cette proposition, que ce soit pour jauger de l'engagement des parlementaires lors des débats à l'Assemblée nationale et au Sénat (première lecture à l'Assemblée ce jeudi 13 février) ou encore pour voir si des propositions d'amendements seront proposées.

Enfin, force est de constater qu'une fois de plus la mobilisation sur le terrain a poussé certains élu-e-s à agir et qu'elle permet de remettre la thématique des langues territoriales au cœur de l'actualité. Et pendant que débats et votes se succéderont à l'Assemblée nationale et au Sénat, le mouvement associatif continuera à se mobiliser et à travailler au sein de structures comme le Collectif *Pour que vivent nos langues* pour obtenir de nouvelles avancées dans leur usage et leur transmission et afin que les droits linguistiques des locuteurs soient enfin reconnus et respectés.

Bayonne, le 12 février 2020